

Getxo >MEETING<

Getxo Meeting Urriak 5: **Eta ikuspuntu hori aldatzen baldin badugu?**

Helburu argia zeukan ekintzaileentzako topaketa horretako urriko lehen saioak : ikuspuntua aldatzen lagundu gure proiektuekin aurrera egin ahal izateko. Gai jakin bat jorratzea aintzat hartuta hori burutzeko dauzkagun eta ikusten ditugun mugak.

Martxan jarri ginen eta lehenik eta behin banaka pentsatu genuen, baina ondoren bakoitzaren gakoak partekatu genituen; hala, besteentzako ekarpenak egin zituzten guztiek.

Gauzatutako dinamikaren izenburua hauxe izan zen: "...nahi dut, baina...".

Bakoitzak "...nahi dut" bat proposatu behar zuen; hau da, bere enpresarentzako lortu nahi duen zerbait zehatza, horren "argazki zorionsua" irudikatzea.

Ondoren, "baina"-k adierazi zituzten, hots, norberak bere helburua lortzeko daukan eragozpen nagusiak. Gauzak horrela, deskribatutako zailtasunak aintzat hartuta, elkarri egin zizkioten proposamenak eta aholkuak eman.

Azkenik, parte-hartzaile bakoitzaren inplikazioarekin, inspirazioak, galdera gakoak, erronkaren birformulazioak eta ideia asko trukatu zituzten: "Galdetu al diozue noizbait zeuen buruari...? ... ezagutzen al duzu? ...(e)kin hitz egin al duzu noizbait? Eta oztopo hori garrantzitsuena izango ez balitz?".

Horrela, proposatutako dinamikaren bitartez, bertaratutakoek beren ikuspuntua partekatu eta helburua birformulatu zuten, mugak birplanteatu zituzten eta aurrera egin ahal izateko beste galdera batzuk jarri zituzten mahai gainean.

Azken finean, ideiak eman zizkioten elkarri.

Pentsarazten dizuten ideiak

Beti ezin daiteke profil desberdinak dituztenen ekarpenak entzun. Gure kontura lan egiten duten pertsonak garen aldetik, batzuetan gure inguru berean daudenen iritzia baino ez ditugu jasotzen, eta horrek ideia freskagarriak jasotzea zailtzen du. Beste batzuetan, aholkuak jasotzen ditugu behar ez ditugunean. Edo, asmo onekoak izan arren, aholku horiek mugatzen zaituzte, hegaz egitera animatu orde.

Alabaina, Getxo Meetingen ez da hori gertatzen. Izan ere, jende desberdina dator beti, baina bakoitzak aukera onak, akatsak, etab. dauzka partekatzeke. Burutzen dituzten

jarduera profesionalak askotarikoak izan arren, asko daukate komunean negozio propioa duten pertsonen. Eta jarrera irekia izatea ezinbestekoa da.

Franz Berbach psikologo alemanaren arabera, pertsona ekintzaileek “arazo komunitarako konponbideak truka ditzakete, baita bata bestearengandik ikasi eta gauak izarrik eta ideiarik gabe ematen dituzten bakarrak ez direla konturatu ere”. Horretarako, bai belaunaldiak, bai sektore profesionalak nahastea gomendatzen du. Hori da, hain zuzen ere, gure topaketetan egiten duguna.

Azken topaketan inspirazioak eta ideia baliagarriak partekatu ez ezik, parte-hartzaileek zenbait arazoei aurre egiteko ikuspegi-aldaketa helarazi zuten; zalantzarik gabe, hori da errealitate berean jarrera desberdina izateko oinarria.

Eta zuri, nork eta zerk laguntzen zaitu inspiratzen?

Hurrengo Getxo Meetingera etor zaitez, urriaren 19an, Getxoko elkartegian. Bi ostegunetik behin egiten dira saioak, 12:00etatik 14:00etara.

Beharrezkoa da saio bakoitzerako izena ematea.

Honela egin dezakezu:

-getxopro@getxo.eus helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz

-944660140 telefono-zenbakira deituz

-Getxolan-Getxo Elkartegiko bulegoetan izena emanaz: Ogoño kalea, 1, 48930, Areetan.

Anima zaitez!